



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**OSOKO BILKURA ETA BATZORDEEN ATALA
SECCIÓN DE PLENOS Y COMISIONES**

N.º 137 ZK.

**2015EKO IRAILAREN 24A
24 DE SEPTIEMBRE DE 2015
09:30**

**EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA DEL PARLAMENTO VASCO**



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Gai bakarra. Politika orokorrari buruzko eztabaida, 1981eko ekainaren 30eko Jaurlaritzaren Legeko 43. artikuluan eta Legebiltzarraren Erregelamenduko 193.ean aurreikusitakoa

Asunto único. Debate sobre política general previsto en el artículo 43 de la Ley de Gobierno, de 30 de junio de 1981, y 193 del Reglamento de la Cámara

Osoko bilkurako tramitazioa (Legebiltzarraren Erregelamenduko 195. artikulua eta Bozeramaileen Batzordeak 2015eko irailaren 16an hartutako erabakia):

- Lehendakariaren hitzaldia, gehienez ere bi ordukoa
- Eten egingo da bilkura
- 14:30ean berriro ekingo zaio bilkurari
- Taldeen txanda, txikienetik handienera, 30na minutukoa
- Lehendakariaren hitzaldia, taldeei banan-banan edo denei batera erantzuteko
- Taldeek erantzuteko txanda, 10na minutukoa

Tramitación en el pleno (artículo 195 del Reglamento de la Cámara y acuerdo de la Junta de Portavoces de 16 de septiembre de 2015):

- Intervención del lehendakari, no superior a dos horas.
- Suspensión de la sesión
- Reanudación de la sesión a las 14:30 horas
- Turno de grupos, de menor a mayor, de 30 minutos
- Intervención del lehendakari en respuesta, individual o conjunta, a los grupos
- Turno de réplica de los grupos de 10 minutos





Lehendakariaren hitzaldiaren laburpena.

Politika orokorrari buruzko eztabaida.

Eusko Legebiltzarra, 2015eko irailaren 24a.

Ekonomiaren, gizartearen, politikaren eta erakundeen egoera.

Ekonomiaren egungo egoeran adierazle positiboak aurkituko ditugu: esan dezakegu susperraldian gaudela eta enplegua sortzen hasiberriak garela.

Susperraldiaren oinarria sendoa da finantzaren ikuspegitik begiratuta, azken ekitaldietan zergak bateratzeko ahalegin handia egin baitugu. Gizartearen ikuspegitik begiratuta, herritarren oinarrizko zerbitzuak finkatu egin dira, eta, horien artetik, premia handiena dutenekiko babesa bermatzea nabarmendu nahiko nuke.

Eusko Jaurlaritzak aurten BPGa % 2,5 handituko dela aurreikusi du, eta enplegua, berriz, % 1,6, lanaldi osoko lanpostuei dagokienez. Joera hori finkatzea da erronka; finkatzea eta kalitate handiagoko enplegua sortzeko aukera izatea.

Politikaren egoerari dagokionez, 2015. urtearen amaieran bi hauteskunde garrantzitsu izango ditugu. Irailaren 27an Kataluniako hauteskundeak izango dira, eta abenduan, aldiz, hauteskunde orokorrak. Zalantzarik gabe, bi hitzordu horiek eragin handia izango dute Estatuaren errealitate juridiko-politikoan, lurraldearen diseinuari dagokionez. Halaber, Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanetan aro berriaren hasiera izango da.

Euskadin, erakundeek egoera berria bizi dute, eta Eusko Jaurlaritzak aurrera egiten jarraitu nahi du harreman politikoak normalizatzeko eta Administrazio publikoen artean akordioak lortzeko bidean. Gure ustez, etorkizun partekatua eraikitzeko ezinbesteko tresna izan da lankidetzeta, eta halaxe izaten jarraitu beharko luke.



Aurrekontuei dagokienez, erakundeen helburua zera da, aurrekontu publikoen bitartez susperraldi ekonomikoaren eta enpleguaren bilakaera positiboa eta kohesioa finkatzea.

Egonkortasuna lortu dugu, eta hori aktibo bat da. Baina Euskadik beste bultzada bat behar du, erakundeen arteko elkarlanean eta hitzarmen publiko-pribatuetan oinarrituta.

Etorkizunari begira, Jaurlaritzaren konpromisoak finkatuta.

Gobernu Programan jasotako konpromisoen arabera, kudeaketaren eremuan lehentasuna hiru ardatzi emango diogu: lehenengoa, zorrotzak izatea egonkortasun-printzipioak kudeatzen eta betetzen; bigarrena, oinarrizko zerbitzuak bermatzea; eta hirugarrena, suspertze ekonomikoari eta kalitatezko enplegua sortzeari lehentasuna ematea.

Sail guztiak helburu berari begira ari dira lanean, Giza Garapen Jasangarria xede duen Estrategia bera partekatuta.

Giza garapeneko estrategia integratzaileari jarraiki, Gobernuaren ekintzaren alderdirik garrantzitsuen pertsonetikiko konpromisoa da. Hazkunde ekonomikoaren estrategiari oinarri sendoak ipini behar dizkiogu: industria, azpiegiturak modernizatzea, nazioartekotzea eta sektore ekonomiko berriei laguntzea. Hazkunde jasangarria berrikuntzan oinarritzen da, berrikuntzan, espezializazio adimendunean eta garapen teknologikoan; eta jasangarria izango da bai ikuspegi finantzariotik begiratuta, bai ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

Horixe da sail guztien esparru-estrategia; eta jarraian, Gobernu Programan bildutako hainbat ekimen nabarmenduko ditut.



Gardentasuna eta gobernu ona.

Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen Gardentasunari eta Gobernu onari buruzko Estatuko Legearen aurreikuspenekin, eta, urtea amaitu aurretik, Gardentasunari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Legearen proiektua helaraziko du Legebiltzarrera, bai eta EAEko Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legearena ere.

Erakunde-politikaren eremuan, EAEko Udalen Legearen inguruan ahalik eta adostasun handiena lortzeko lanean ari da Jaurlaritza. Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legea Legebiltzarrera igorri dugu, bai eta Fundazioen Legea ere. Eta, laster, Enplegu Publikoaren Legearen proiektua onartuko da.

Baliabide publikoen kudeaketa.

Jaurlaritzak zerga-baterakuntzako eta defizita zorrotz kontrolatzeko politikekin konpromisoa hartu zuen, ekonomian, zergen arloan eta aurrekontuetan egonkortasuna lortzearen.

Zergen arloan, berriki adostasun zabalarekin onartutako erreforma integrala nabarmenduko dut. Esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratua aipatu nahi dut; plan horri dagokion 2014ko txostena onartuta dago.

Legegintzari dagokionez, Jaurlaritza ekonomiaren eta finantzaren zutabeak finkatzeko ahaleginetan ari da, hainbat arauen bitartez, hala nola, Euskal Estatistika Planaren Legearen edo Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei Buruzko Lege-proiektuaren bitartez; Legebiltzarrera igorrita daude jada.

Ekonomiaren garapena.

2015eko lehen seihilekoan ekonomiaren joera aldatu egin da: BPGa % 2,7ra iritsi da bigarren hiruhilekoan, esportazioak % 4,3ra, Industria Produkzioaren Indizea % 4,7 hazi zen uztailen, eta enpresa-konfiantzaren adierazleak % 3,8 egin zuen gora ekainean.



Jaurlaritzak espezializazio adimendunaren aldeko apustuari eutsi dio Europako RIS 3 esparruaren baitan, industriaren digitalizazioa eta Basque Industry 4.0 proiektua alde batera utzi gabe.

Gizarte-kohesioa.

Gizarte Zerbitzuen Zorroaren inguruan lortutako akordioa nabarmendu nahi dut. Gainerako erakundeekin eta hirugarren sektorearekin batera, ahalegin handia eginez, pobrezia aurre egiteko programei eta, bereziki, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari eman diegu lehentasuna.

Orain, Plan Estrategikoa taxutzea da gure erronka, eta Gizarte Zerbitzuen Mapara zabaltzea.

Enplegu-politikak.

Eusko Jaurlaritzak lehentasun gisa hartzen du gai hau, 2016. urtera arte iraungo den Susperraldi Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Planean txertatuta dagoen aldetik. Guztira 6.475 milioi euro mobilizatzea dugu xede.

Gazteen enplegua eta 45 urtetik gorakoen enplegagarritasuna sustatzea dira lehentasunezko helburu. Jardunen adibide bat ematearren, Tokiko eta eskualdeko enplegu-planei emandako bultzada aipatuko dut.

Etxebizitzari buruzko politika publikoa.

Etxebizitzari buruzko Legea berriki onartu da baina legea abiarazteko zailtasunak izan ditzakegu, baldin eta Espainiako Gobernuak arau horren aurka konstituziokontraotasun-errekurtsoa aurkeztea erabakitzen badu.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritza etxebizitzaren arloko politika Lege horren xedapen berrien arabera egokitzen ari da, eta, horretarako, Etxebizitza Plan Zuzendarian onartutako aurreikuspenak eguneratzen eta garatzen ari da.



Hezkuntza, Unibertsitatea, Lanbide Heziketa, Euskara.

EAEko hezkuntza-sistemaren bereizgarriei eutsi die Jaurlaritzak, hau da, adostasunari, egonkortasunari eta ekitateari. Heziberri 2020 Planari esker, hezkuntza-komunitate osoak parte hartzeko prozesua abiaraziko da.

Jaurlaritzak Unibertsitate Plana onartu du, eta ikerketaren, zientziaren eta teknologiaren arloetako hobekuntzan unibertsitateak berak betetzen duen eginkizunari bultzada eman dio; era berean, ikerketa-ahalmenaren alde ere egin du, Ikerbasque programaren bitartez edo BERC zentro-sarearen bitartez.

Lanbide Heziketaren arloan, enpresen premietara egokitzen eta aldaketak egiten jakin izan dugu beti Euskadin, eta orain, Lanbide Heziketa Dualaren proiektua da aipagarri.

Hizkuntza-politikaren arloan, Jaurlaritzaren jarduna berriki onartutako Euskararen Agenda Estrategikoan txertatzen da.

Kultura Estrategia.

Jaurlaritzak aro digitalaren aukerei lehentasuna ematen ari da; Euskadi Kreatiboa eta Euskadi Digitala dira proiektu aipagarrienak.

Aurten, bereziki erreparatuko diogu Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuaren proiektuari, herrialdeko proiektutzat hartu baita. Erronka partekatu horren bitartez, Euskadik Europan irudi positiboa izatea lortu nahi dugu.

Segurtasun Publikoaren Plana.

Segurtasun Publikoaren Plan Orokorrean, mota guztietako larrialdietan laguntza ematea lanbide duten milaka pertsonaren lana bildu da; fenomeno naturalek eragindako arriskuen prebentzioa ere sartzen da; bai eta jokoan eta ikuskizunen arloko segurtasun-arauak betetzea, edota trafikoaren kudeaketa ere.

Jaurlaritzaren lehentasunetako bat da emakumeen aurkako indarkeriari dimentsio anitzeko erantzuna emateko bidean aurrera egitea. Koordinatuta



egiten dugu lan, dela indarkeriaren biktima diren emakumeei segurtasuna eta baliabideak eskaintzeko, dela arlo guztietan prebentzioa eta berdintasun-politiken garapena sustatzeko.

Osasun Plana 2020.

Jaurlaritzak onartutako plan hori Legebiltzarrean ebaluatu da.

Eusko Jaurlaritzak jakin badaki erronka latza izango dela oinarrizko zerbitzu honen kalitateari eustea, biztanleria arian-arian zahartzen ari baita, eta, horrekin batera, gaixotasun kronikoen prebalentziak ere gora egin baitu.

Lehen Mailako Arretako zerbitzuak Ospitaleetako zerbitzuekin uztartzeko prozesuan aurrera egiten ari da Osakidetza, eta, horretarako, Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) sortzen ari da. Gizarte-zerbitzuekin koordinatuta ari gara.

Lurralde Politika eta Ingurumena.

Euskadin ahalegin handia egiten ari gara garraioaren eta mugikortasunaren sarea modernizatzeko plangintzak eta inbertsioak egiteari dagokionez.

Abiadura Handiko Trenaren aldeko apustuari eutsiko diogu 2019. urteari begira, Euskadi Europarekin eta Estatuarekin lotuko duen funtsezko azpiegitura lortzeko, bai eta barne-kohesioa eta -mugikortasuna sustatzeko ere.

Aurtengo udaberrian, Jaurlaritzak Klima-aldaketaren aurkako euskal Plana onartu du. Ingurumenari buruzko Legea berrikustean, ingurunea zaintzea eta ekonomia berdea garatzea izango ditugu xede, betiere uraren kudeaketan, hondakinen tratamenduan edota lurzoruen garbiketan dugun eskarmentua ahaztu gabe.

Ekimen horiek bat datoz Gobernu Programaren konpromisoekin eta Euskadin giza garapen eta hazkunde jasangarria bultzatzeko 14 plan estrategikoekin.



Legealdiaren azken txanpa honetan, Jaurlaritzak bere hiru konpromiso nagusiei erantzun behar die: ekonomia suspertzea eta enplegua; bakea eta bizikidetzaz; eta etorkizuneko estatus politiko berria.

Ekonomia suspertzea eta enplegua.

Lehenengo erronka etorkizun ekonomikoa eratzen jarraitzea da, susperraldia eta kalitatezko enplegua finkatuko dituen garapena lortzea, elkartasuna bermatuta betiere.

Gure gizarteak kalitatezko gizarte-zerbitzu jasagarriak izan nahi baditu, ekonomia lehiakorra eta orekatua izatea lortu beharko du.

Jaurlaritzak Euskadiko laugarren iraultza industrialaren oinarriak finkatu nahi ditu, berrikuntzaren, fabrikazio aurreratuaren eta industriari digitalizazioa aplikatzearen bitartez. Eta lan hori gainerako erakundeekin, unibertsitateekin, teknologia-zentroekin edota ikerketa-zentroekin batera, elkarlanean egin behar du Eusko Jaurlaritzak, eta enpresa-munduarekin adostuta.

Horretaz gain, ezinbestekoa da Euskadiren etorkizun ekonomikoan ikuspegi irekia izatea, bai eta nazioartekotzearen alde egitea eta kanpora gehiago zabaltzea ere, Euskadi-Basque Country Estrategia globalaren esparruan.

Bakea eta Bizikidetzaz.

Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzaz Planean jasotako ekimenak betetzeko konpromisoa hartu du. Gizarteak espero du, indarkeria behin betiko eta lehenbailehen bukatzeko prozesuan, guk ere zerbait egitea, eta horrexetan jardungo dugu. ETARI armak ematea eta desagertzea eskatzen dio Euskadiko gizarteak, eta eragile politiko eta instituzionalei, aldiz, indarkeria modu antolatuan amaitzea.

Gogora –Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua– abian jartzea legealdi honetako ardatzetako bat izan da. Indarkeriari uko egiten dioten eta giza eskubideen konpromisoan eta bizikidetzaren helburuan oinarritzen diren oroimen-politikak bultzatzen jarraituko dugu.



Bakea eta Bizikidetzaren lortzeko eta horren alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, ideia nagusi bati jarraiki: gizartea elkar dadin sustatzea, eta egiten dugun jardun bakoitzean adostasuna eta parte-hartzea ahalbidetzea.

Etorkizuneko Estatus Politiko Berria.

Jaurlaritzaren konpromisoak Gobernu Programan jasota daude, eta, batzorde txostengile bat sortzeko proposamena abiapuntu izanik, Legebiltzarreko taldeek autogobernua ebaluatu ahal izango dute eta, adostasunetik abiatuta, etorkizuneko garapenaren oinarriak finkatu.

Batzordea 2014ko martxoaren 27an sortu zen eta nabarmendu nahi nuke talde guzti-guztiek parte hartu dutela; talde guztiek entzuten eta partekatzen jakin dute, nahiz eta proiektu politiko desberdinak ordezkatzeko dituzten.

Jaurlaritzaren azken ekarpena zera izan da, eskatutako zortzi txostenak Batzordearen esku jartzea. Jaurlaritzak adostasun jakin batzuk finkatzea lortu nahi du: Gernikako Estatutuak eginkizun garrantzitsua betetzen du geure baterako bizitza eta ongizatea hobetzeari dagokionez, eta Estatutu hori erabat beteko dela bermatzeko premia dago; Ekonomia Itunaren sistemak onartzen digun berezitasuna defendatu behar da; edota autogobernua eguneratu eta Europako errealitate berrira egokitu behar da.

Autogobernuari dagokionez, etorkizuna diseinatzeko garaian planteamendu adostu eta integratzaile batean oinarritzearen alde egingo du Euzko Jaurlaritzak oraindik ere, betiere honako sekuentzia honen ondorio den aldetik: elkarrizketa / negoziazioa / akordioa / berrespena.



Resumen de la intervención del Lehendakari.

Debate de Política General.

Parlamento Vasco, jueves 24 de septiembre de 2015.

Escenario económico, social, político e institucional.

El escenario en que se desenvuelve hoy la economía vasca cuenta con indicadores positivos de recuperación e incipiente creación de empleo.

La base de la recuperación es sólida desde el punto de vista financiero porque hemos hecho un esfuerzo de consolidación fiscal en los últimos ejercicios. Desde el punto de vista social se han asentado los servicios esenciales a la ciudadanía, destacando la garantía de la protección a las personas más necesitadas.

El Gobierno Vasco mantiene la previsión de crecimiento del 2,5% del PIB para el presente año, así como un crecimiento del empleo del 1,6% en términos de puestos de trabajo a tiempo completo. El reto es consolidar esta tendencia y generar oportunidades de empleo de mayor calidad.

El escenario político nos sitúa en un cierre de 2015 con dos citas electorales de especial relevancia. El 27 de septiembre se celebran las Elecciones en Catalunya y el mes de diciembre las Elecciones Generales. Es indudable que ambas pueden afectar a la realidad jurídico-política del Estado en materia de diseño territorial. Abrirán también un nuevo periodo en las relaciones entre Euskadi y el Estado.

En Euskadi contamos con un nuevo escenario institucional y el Gobierno Vasco mantiene su apuesta por avanzar en la normalización de las relaciones políticas y alcanzar acuerdos entre las diferentes Administraciones públicas. Entendemos que la cooperación tiene que seguir siendo la herramienta para construir un futuro compartido.



Las instituciones afrontamos el horizonte presupuestario con el objetivo de promover unos presupuestos públicos que sigan afianzando la cohesión y el buen rumbo para la recuperación económica y el empleo.

La estabilidad alcanzada es un activo y Euzkadi necesita un nuevo impulso desde la colaboración institucional y la concertación público-privada.

Una mirada al futuro afianzando los compromisos del Gobierno.

El Programa de Gobierno asume el compromiso de dar prioridad a tres ejes en el ámbito de la gestión: rigor en la gestión y cumplimiento de los principios de estabilidad; garantía de los servicios esenciales; prioridad a la reactivación económica y la creación de empleo de calidad.

Todos los Departamentos están trabajando en una misma dirección, compartiendo una misma Estrategia orientada por el Desarrollo Humano Sostenible.

Una estrategia de desarrollo humano e integrador que sitúa el compromiso con las personas en el frontispicio de la acción del Gobierno. Una estrategia de crecimiento económico con base en la industria, la modernización de las infraestructuras, la internacionalización y el apoyo a los nuevos sectores económicos. Un crecimiento sostenible basado en la innovación, la especialización inteligente y el desarrollo tecnológico; sostenible tanto desde el punto de vista financiero como medioambiental.

Esta es la estrategia-marco de todos los Departamentos y, a continuación, se destacan algunas de sus iniciativas en el contexto del Programa de Gobierno.

Transparencia y Buen gobierno.

El Gobierno Vasco está comprometido con las previsiones de la Ley estatal de Transparencia y Buen gobierno y, antes de finalizar el año, remitirá al Parlamento el Proyecto de Ley de Transparencia y Participación Ciudadana, así como el de Organización y Funcionamiento del Sector Público vasco.



En el ámbito de la política institucional el Gobierno trabaja por alcanzar el máximo consenso en torno a la Ley Municipal. Hemos remitido al Parlamento la Ley de Ordenación del Servicio Jurídico, así como la Ley de Fundaciones. Próximamente se aprobará el proyecto de Ley de Empleo Público.

Gestión de los recursos públicos.

El Gobierno está comprometido con las políticas de consolidación fiscal y control disciplinado del déficit, en aras a favorecer la estabilidad económica, fiscal y presupuestaria.

En el ámbito fiscal, destaca la reciente reforma de carácter integral, aprobada con un amplio consenso. En este marco se destaca el Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal cuyo informe 2014 ha sido aprobado.

Desde el punto de vista legislativo, el Gobierno contribuye a asentar los pilares económico-financieros a través de normas como la Ley del Plan vasco de Estadística o los proyectos de ley de Cajas de Ahorro y Fundaciones Bancarias, remitidos a la Cámara.

Desarrollo Económico.

El primer semestre de 2015 ha supuesto un cambio de signo económico: el PIB ha alcanzado el 2,7 % en el segundo trimestre y las exportaciones el 4,3%, el Índice de Producción Industrial creció en julio el 4,7% y la confianza empresarial en junio crece el 3,8%.

El Gobierno mantiene la apuesta por la especialización inteligente en el marco europeo RIS 3, así como la digitalización de la industria y el proyecto “basque industry 4.0”.

Cohesión Social.

Es reseñable el acuerdo alcanzado en relación a la Cartera de Servicios Sociales. Junto al resto de instituciones y el Tercer Sector hemos priorizado,



con un considerable esfuerzo, los programas de lucha contra la pobreza y especialmente la Renta de Garantía de Ingresos.

Afrontamos ahora el reto de culminar el Plan Estratégico y su extensión al Mapa de Servicios Sociales.

Política de Empleo.

El Gobierno Vasco subraya esta prioridad, contemplada en el Plan de Reactivación Económica y de Empleo que se extiende en el horizonte de 2016 con el objetivo de movilizar un total de 6.475 millones de euros.

Los objetivos prioritarios son el Empleo juvenil y el apoyo a la empleabilidad de las personas mayores de 45 años. Un ejemplo de actuación ha sido el impulso de los Planes locales y comarcales de empleo.

Política pública de Vivienda.

La puesta en marcha de la Ley de Vivienda recientemente aprobada podría estar condicionada por la decisión que adopte el Gobierno Español sobre la presentación de un recurso de inconstitucionalidad a dicha norma.

En cualquier caso, el Gobierno Vasco está adecuando su política a las nuevas determinaciones de esta Ley, actualizando y desarrollando las previsiones aprobadas en el Plan Director de Vivienda.

Educación, Universidad, Formación Profesional, Euskera.

El Gobierno mantiene las señas de identidad del sistema educativo vasco, que son el consenso, la estabilidad y la equidad. El Plan Heziberri 2020 supone la apertura de un proceso de participación de toda la comunidad educativa.

El Gobierno ha aprobado el Plan Universitario, impulsando el papel propio de la Universidad en la mejora investigadora, científica y tecnológica; apoyando también la capacidad investigadora con programas como Ikerbasque o la red de centros BERC.



En el ámbito de la Formación Profesional, Euskadi cuenta con una larga tradición de cambio y adaptación a las necesidades de las empresas, destacando el impulso dado al proyecto de FP Dual.

En el ámbito de la política lingüística la iniciativa del Gobierno se enmarca en la Agenda Estratégica del Euskera recientemente aprobada.

Estrategia Cultural.

El Gobierno está primando las oportunidades de la era digital con proyectos como Euskadi Creativa y Euskadi Digital.

Este año se dedica una especial atención a la Capitalidad Cultural Europea “Donostia 2016”, catalogada como proyecto de País. Es un reto compartido que va a contribuir a proyectar una imagen positiva de Euskadi en Europa.

Plan de Seguridad Pública.

Este Plan general de Seguridad pública aglutina la labor de miles de personas que dedican su vida profesional a la atención a todo tipo de emergencias; la prevención de riesgos por fenómenos naturales; el cumplimiento de las normativas de seguridad en materia juegos y espectáculos o la gestión del tráfico.

Una prioridad del Gobierno es avanzar en una respuesta multidimensional a la violencia contra las mujeres. Trabajamos en coordinación, tanto para ofrecer seguridad y recursos a las mujeres víctimas de violencia, como para incidir en la prevención y el desarrollo de las políticas de igualdad en todos los ámbitos.

Plan de Salud 2020.

Este Plan aprobado por el Gobierno ha sido evaluado por el Parlamento.

El Gobierno es consciente de los retos para mantener la calidad de este servicio esencial por el progresivo envejecimiento de la población, asociado al incremento de la prevalencia de las enfermedades crónicas.



Osakidetza avanza en la integración de los servicios de Atención Primaria con los Hospitalarios mediante la creación de las Organizaciones Sanitarias Integradas (OSI). Trabajamos en coordinación con los Servicios Sociales.

Política Territorial y Medio Ambiente.

Euskadi realiza un enorme esfuerzo de planificación e inversión para la modernización de su red de transporte y movilidad.

Mantenemos la apuesta por el Tren de Alta Velocidad con el horizonte de 2019 para una infraestructura esencial para la conexión de Euskadi con Europa y el Estado, así como para la cohesión y movilidad interna.

Esta primavera el Gobierno ha aprobado el Plan Vasco contra el Cambio Climático. Euskadi afronta la revisión de la Ley de Medio Ambiente con la mirada puesta en la preservación del entorno y el desarrollo de una Economía verde en un País con amplia experiencia de gestión en materia de agua, tratamiento de residuos o descontaminación de suelos.

Estas iniciativas responden a los compromisos del Programa de Gobierno y los 14 Planes estratégicos para impulsar el desarrollo humano y el crecimiento sostenible en Euskadi.

El Gobierno afronta el último tramo de la legislatura respondiendo a sus tres compromisos centrales: Reactivación Económica y Empleo; Paz y Convivencia; Nuevo Estatus Político de futuro.

Reactivación Económica y Empleo.

El primer reto es seguir construyendo futuro económico, un desarrollo que asiente la recuperación y el empleo de calidad, garantizando la solidaridad.

Una sociedad que desea contar con servicios sociales de calidad y sostenibles, debe disponer de una economía competitiva y equilibrada.



El Gobierno apuesta por sentar las bases de la cuarta revolución industrial en Euskadi a través de la innovación, la fabricación avanzada y la aplicación de la digitalización a la industria. Esta es una tarea del Gobierno Vasco en colaboración con las Instituciones, Universidades, Centros Tecnológicos o de Investigación y de forma concertada con el mundo de la empresa.

Además, el futuro económico de Euskadi demanda una visión abierta, apostar por la internacionalización y avanzar en la apertura al exterior en el marco de la Estrategia global Euskadi-Basque Country.

Paz y Convivencia.

El compromiso del Gobierno es cumplir las iniciativas recogidas en el Plan de Paz y Convivencia.

Mantenemos el convencimiento de que la sociedad espera que contribuyamos a culminar cuanto antes el final de la violencia.

La sociedad vasca exige a ETA su desarme y desaparición, y demanda de los actores políticos e institucionales un final ordenado de la violencia.

La puesta en marcha de Gogora, el Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos es un eje de esta legislatura.

Vamos a seguir impulsando políticas de memoria que integren a la sociedad, basadas en el rechazo a la violencia, el compromiso con los derechos humanos y el objetivo de la convivencia.

Nuestro compromiso es trabajar por y para la Paz y la Convivencia con una idea central: promover el encuentro social, favorecer el consenso y la participación en cada actuación que desarrollamos.



Nuevo Estatus Político de Futuro.

Los compromisos del Gobierno están recogidos en su Programa y parten de la propuesta de creación de una Ponencia parlamentaria para que los grupos de la Cámara puedan evaluar el Autogobierno vasco y, desde el consenso, acordar las bases de su desarrollo futuro.

La Ponencia se constituyó el 27 de marzo de 2014 y cabe resaltar que su trabajo se ha llevado a cabo con la participación de todos los grupos; y que estos han sabido escuchar y compartir a pesar de los diferentes proyectos políticos que representan.

La contribución más reciente del Gobierno ha sido poner a disposición de la Ponencia los ocho Informes que le habían sido requeridos.

El objetivo del Gobierno es tratar de afianzar determinados consensos: el papel del Estatuto de Gernika en la mejora de nuestra vida en común y bienestar, así como la necesidad de garantizar su pleno cumplimiento; la defensa de la singularidad que reconoce el sistema de Concierto Económico Vasco; o la necesidad de actualizar el Autogobierno y adaptarlo a la nueva realidad europea.

En materia de Autogobierno el Gobierno reitera la apuesta por diseñar el futuro desde un planteamiento consensuado e integrador, fruto la secuencia: diálogo / negociación / acuerdo / ratificación.